



Arraibi, 1

Tlfonos.: 94 631 34 59 - 94 631 30 05 - Fax 94 631 43 22

www.lemoa.net

48330 LEMOA (Bizkaia)

MARTXOAK 8KO ADIERAZPENA

Martxoak 8, Emakumeen nazioarteko Eguna hurbil daukagun honetan, Lemoako Udalak gizon eta emakumeen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko lanean aritzeko dugun konpromisoa berretsi nahi dugu.

Aldaketa garaia bizi dugu Euskal Herrian. Aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko garaia. Emakumeak aldaketa horren subjektuak izan daitezen politika feminista garatzea ezinbesteko konpromisoa da.

LEMOAKO UDALAK BULTZATUKO DITUEN POLITIKA FEMINISTEK HONAKO HAU IZANGO DUTE KONTUAN:

Emakumeok jasaten dugun zapalkuntza egiturazkoa da. Hau da, jendartearen egituraren emaitza da eta antolaketa ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan uztartuta dago. Egiturazkoa da patriarkatua erabat errotuta dagoelako gure jendartean eta antolaketa eredu hori sistema kapitalistaren ezinbesteko zutabea delako.

Udaletan garatu nahi dugun Politika Feministak estrukturala den arazo bati erantzun nahi dionez, ezinbestean politika integrala izan behar du emakumeen bizitzaren arlo guztietan eragin behar duelako. Politika feministak emakumeon eskubideetan oinarrituko dira. Beste herri eredu baten eraikuntza dugu helburu. Hau da, gizon eta emakumeen arteko harreman eredu berri bat eraiki nahi dugu.

Politika feministak emakumeen gidaritzat eta parte hartzea bilatuko du. Politika honen definizioa mugimendu feminista eta emakume taldeekin egin behar da. Hauen parte hartzeak politika feminista erreal definitzea ahalbideratuko du. Espezifikoki landuz baina zeharkakotasuna ahaztu gabe martxan jartzen ari garen proiektua oinarri feministetan egituratuko dugu eta gure herrian sortzen ditugun politika guztietan ikuspegi feminista izango dugu kontuan.

Bukatzeko Lemoako Udalak mugimendu feministak antolatuko dituen ekimen guztietara joateko deia luzatu nahi die herritar guztiei.

Asko dugu egiteko eta asko dugu ikasteko. Politika feminista gure herrian marratzen ari garen aldaketa politiko eta sozialaren izarra bihurtu behar dugu.

ALKATE ANDREAK

Sin. Saioa Elejabarrieta Amorrortu